

bidaiari

naiz: en bidaia aldizkaria

2022ko iraila | 012. zenbakia | 1,50€



ISTANBUL

Hamaika mundu, hiri bakarra

ANCONA | MAE KLONG | CHIRRIPO | HUAHINE | CASTILLO DE LAPOBLACIÓN

Badago ezagutzeko mundu bat



bidaiari
naiz:-en bidaia aldizkaria

11 ZENBAKI URTEAN, 15€

HARPIDETU ZAITEZ!

URTEKO HARPIDETZA Euskal Herrian 15€ · Ipar Euska Herrian 25€ · Estatu espainolean 18€ · Europan 50€

Bidal ezazu kupoi hau honako helbide honetara:

Bidaiari Portuetxe 23, 2. solairua 20018 Donostia (Gipuzkoa) EUSKAL HERRIA

Izena			
Abizenak			
Helbidea			
Herria	Posta Kodea	Herrialdea	
NAN	E-Posta	Telefonoa	
Kontu korrante zenbakia			
Kontuaren Jabea			

Nahiago izanez gero, mezu elektronikoa bat bidal dezakezu bidaiari@astero.net helbidera, kupoiaren azaltzen diren datuekin edo www.naiz.eus/bidaiari web orrian sar zaitezke eta harpideteko formularioa bete dezakezu.

Urruina distribution & services, S.L.-ren produktuei eta/edo sustapenei buruzko informaziorik jaso nahi ez baduzu, markatu X bat laukian ☐

Sustapen honen barruan jasotako datu pertsonalak Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) eta Urruina distribution & services SL-en (Kale Nagusia 2 - 4, 48001 Bilbo) datu-base batean sartuko dira. Datuak guztiz konfidentzialak dira, datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko lege Organikoari jarraiki. Nolanahi ere, eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko edo ezereztzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu. Horretarako, Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) helbidera jo behar duzu.

bidaiari 012

2022ko iraila

Zazpi Haizetara
aldizkariaren 161.
zenbakia litzatekeena

AZALEKO ARGAZKIA:

Nuria

LÓPEZ TORRES

ARGITARATZAILEA:

Astero.

Herritar Berri SLU.

Zazpi Haizetara

aldizkariaren lan

taldeak ekoiztua.

EDITOREA:

Eguzki

Agirrezabalaga

JATORRIZKO DISEINUA:

Grafik Sarea +

Artefakto

MAKETAZIOA:

Oiartso

Los Arcos Urbina

EGOITZA:

Portuetxe, 23 -2. A

20018 Donostia

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

bidaiari@astero.net

TELEFONOA:

943 31 69 99

www.naiz.eus/bidaiari

LEGE GORDAILUA:

01361-2021

INPRIMATZEN DU:

Printek

Inprimategia.

Zamudio



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



06 ISTANBUL: HAMAICA MUNDU, HIRI BAKARRA Zazpi muinoren artean eta bi kontinentetan erdibiturik dago Turkiako hiriburua den Istanbul, baina bere barrenean hamaika mundu eta herri gordetzen ditu. Egun indartsu mantentzen diren tradizioekin eta joera garaikideagoekin tupust egingo dugu paseo aberasgarri honetan.

14 ANCONA Igarobideko portu bat baino ez askorentzat, itsaso Adriatikoaren italiar iparraldeko atea den hiriak ehunka urteko historia gordetzen du.



28 CHIRRIPO Costa Ricako mendirik garaienean, oihan hodeitsuan, zain ditugu aintzirak, babestutako baso eta fauna guñeak eta egundoko ikuspegiak.



24 MAE KLONG Thailandiako txoko harrigarrienetako batean egingo ditugu erosketak, trenak erditik moztutako Mae Klong merkatu jendetsuan.



36 HUAHINE Lasaitasuna eta edertasuna dira nagusi banilla usaina duen Polinesiako eremu ezezagun bezain lirainean. Bi irla, bakarraren prezioan.



44 CASTILLO Ibilaldi labur batekin erraz iritsiko gara Arabak, Errioxak eta Nafarroak bat egiten duten Lapoblación herriaren haitzera.



50 **BERTATIK BERTARA** Meatzaritzaren Museoa 54 **EGIN PLANAK** Euskal Herriko Erdi Aroko gazteluak, «Imajinatu Zinemaldia» erakusketa, Lizarrako Antzinako Musikaren 53. edizioa, Herniora erromeriak... 56 **HIRIAK MOTZEAN** Ilulissat Icefjord, izotzaren historia fiordo batean 60 **MUNDUAN PASIERAN** Beroa eta izotza, Paris Henge, bufaloak, fosilak eta medusak, kometak, jatetxeak eta liburuak...



TSALKAKO ZUBIA

Kafe bat, ezin gorago

Bizikletan, tirolina baten gainean, dabil jendea Tsalkako arroilaren gain-gainean eskegita dagoen eta 250 metroko luzera duen altzairuz eta beiraz eraikitako zubian.

Erdian, proiektu honen harribitxia: diamante formako kafetegia, Munduko Errekoren Guinness zerrendaren arabera, inoiz eraiki den taberna zintzilikaririk altuena. Eta, bide batez, izena eman diona eraikinarri: Diamantezko Zubia. Georgiako hiriburua den Tbilisitik 100 kilometrora aurkitu ahal dugu, Tsalka izeneko hiriarren kanpoaldean.

Bizikletan zeharkatu daitekeen soka-zubiaz gain, labarraren gainean eraikitako kulunka ere bisi-tatu daiteke. Kass Groupek, zubiaren proiektua-ren eta eraikuntzaren arduradunak, etxetxoz osatutako resort bat altxatu du aldameneari, ja-tetxe eta igerilekuz horniturik; 150 euroren truke bi pertsonak gau batean har dezakete os-tatu bertan.

Aldi berean, etorkizunean laser argiekin ikuski-zunak, kanpatzeko eremu bat, uretako parke bat eta musika jaialdiak ospatzeko gunea ere izango dituela iragarri dute arduradunek.

Hain altuera handian bertigoia sentitzen dutenei sekulako oparia ere gordetzen die Tsalkak lurra-ren arrasean: inguruan dagoen natura erreserba guztiz gomendagarria. Bertan, besteak beste, iturri termaletan bainatzeko eta mendi ibiliak eta piraguismoa egiteko aukera dago. Bi kilome-tro baino gutxiago ibiliz gero, urdin turkesa ko-loreko ur-jauzi natural zoragarriez gozatu daiteke. Neguan bisitatuz gero, litekeena da izoz-turik aurkitzea.

Lehenbizikoz 2022an atek ireki zituen garaiera handiko atrakzio turistiko honek 450.000 bisi-tari espero ditu lehen urtean. Vano SHLAMOV | AFP





ISTANBUL

Hamaika mundu hiri batean







**Zazpi muinoren artean, bi
kontinente, hainbat herri eta
hamaika mundu bizi dira elkarrekin
Turkiako hiriburu den Istanbulen.
Eyüp tradizional eta kontserbadorea,
Nisantasi kosmopolita eta bohemioa,
Tarlabasi zaratatsu eta herrikoia edo
denboran zintzilik geratu den
Çarsamb auzoak biltzen ditu, gertu
bezain urrun, Konstantinoren hiriak.**

Testua eta argazkiak: **Nuria LÓPEZ TORRES**

Istanbul “zazpi muinoen hiria” bezala ezagutzen da. Konstantinopla mitikoa Erroma eredutzat hartuta sortu zen, eta Konstantinok formulatu zuen hura, inperioko lehen hiriburuan erabilitako sinboloak eta errituak inportatuta. Zazpi muinoek alde zaharrean dauden muinoei egiten diete erreferentzia; hala ere, gaur egungo Istanbul dozenaka muinoren gainean dago, eta auzoek gorä egiten dute ezin konta ahala muino eta haranetan, ikuspegiak hartzen duen lekuraino.

EYÜPEN ESPIRITUALITASUNA Zarata harmoniko batek hartzen du Eyüp plaza. Gune honetan saltzaileek, harat-honat dabiltzan ibiltariak, ezkontzaren bateko gonbidatuak, otoitzek eta iturri bateko ur-jarioak udaberriko sinfonia ederra osatzen dute, auzo kontserbadore hau bizitzaz blaitzen duena erabat. Eguzkiak aurpegirik onena erakutsi die, egun horretan, lagun taldean elkarrekin dabiltzan hainbat neskari: soineko tradizionalak jantzita dabilta, metroka gas eta satinek laztanduta. Eyüpeko meskitaren aurreko enparantza honetara hurbildu dira, lehenengo argazkiak egitera eta Islameko tenplu musulman sakratuenetako baten bedeinkazioa jasotzera: laugarren erromesaldia-lekua, Meka, Medina eta Jerusalem ondoren, bertan dagoelako lurperatuta Mahomaren laguntzaile eta adiskide izan zen Abbu Ayyub al-Ansari. Meskita txiki samarra da, baina beste tenplu handiek ez duten edertasuna eta xarma ditu honek.





Meskitako patioan, ama batek argazkiak atera dizkio seme txikiari: “sultan txiki” bat dirudi, gizon musulmanen zirkunzizioaren zeremonian erabiltzen den jantzi tradizionalarekin. Ostiralez egiten da ospakizun hori, eta ohikoa da hainbat adinetako haurrak janzkera horrekin ikustea, atzean fededunen errezoak entzuten diren bitartean.

Eyüp auzoa oso leku interesgarria da Istanbul tradizional eta kontserbadore horri pultsua hartzeko; leku lasaia da, kolorezko egurrezko eraikinak dituzten kale pintoreskoekin. Meskitaren ondoko muinoaren tontorrean Pierre Loti kafetegi ospetsua dago: horretxegatik ageri ohi da auzoa turismo gidetan, kafetegiak ikuspegi ezin hobea duelako Urrezko Adarraren gainean. Kafetegira iristeko otomandar hilerri izugarri handi bat zeharkatu behar da: mendixka osoa nekropoli handi bihurtuta. Teleferiko batean ere igo daiteke, presaka ibiliz gero, baina merezi du eremu santu ikusgarri hori zeharkatzea.

ISTANBULGO ZELAI ELISEOAK Ehun eta laurogei graduko saltoa eginda, Nisantasi auzora iritsi da bidaiaria: “Zelai Eliseoak” izenarekin da ezaguna eta hiriaren europar aldean dago, Beyoglu auzotik iparraldera.

Glamour handiko auzoa da, hiriko dendarik luxuzkoenak hartzen dituenak: Chanel, Hermes, Cartier edo Luis Vuitton, besteak beste. Non ia ezinezkoa

Orrialde honetan, Bosforo itsasartean, ferry baten gainean, bi gazte, atzean Dolmabahçe meskita dutelarik. Ezkerraldean, goian, Urrezko Adarra golkoaren bista, kafe batetik. Bertan amaitzen da Bosforo itsasartea. Ezkerrean, behean, Üsküdarretik eguzkiaren sarrerari so hainbat pertsona, hiriaren ekialdeko terraza batean.



**Goiko argazkian,
dervixe ikuskizuna.
Aldamenean, ume
batzuk Meskita
Urdinaren barruan
jolasten. Hurrengo
orrialdean, Bazar
Handia.**





den emakume bat beloa jantzita ikustea eta gama altuko lurrinek espaloiak betetzen dituzten.

Erraza da Orhan Pamuk Literaturako Nobel saridunaren eleberrietako pertsonailetako batzuk kafetegi bateko terrazan whisky bat edo, agian, kafe turkiar bat hartzen eserita imajinatzea. Orhanek Nisantasi erabili izan du bere obra handietako batzuk girotzeko. Auzo kosmopolita da eta, neurri batean, kutsu bohemioa du; bertan artista eta intelektual asko bizi dira, baita atzerriar asko ere. Kafetegiek, gama altuko jatetxeek, pubek eta diskotekek Turkiako eta nazioarteko *celebrity*-ak hartzen dituzte beren establezimendu *chic* horietan. Auzoak arkitektura modernoko bulego-eraikin handiak eta *art nouveau* estiloko eraikin-guneak konbinatzen ditu. Auzoko azken birmoldaketa Bartzelonako rambletan oinarritu da.

DENBORAN ZINTZILIK DAGOEN LEKU BAT Nisantasiaren antipodetan, eta garai eta denbora zehaztugabe batera bidaiarekin, Çarsamba auzo txiki dago, turismo gidek aipatu ere egiten ez dutena eta turistarik hartzen ez duena (turistarik iritsi bada, seinale despistatuta zebilela). Muino baten gainean gotortuta, Fener edo Balat auzoetatik (turismo zirkuitutik kanpo dauden beste bi auzo) gora eginez iristen da bertara.

Beltz koloreko orbanen joan-etorri bat ikusten da urrun, muinoa korotzen duen eta Urrezko Adarraren zati baten gaineko ikuspegi ikaragarriak dituen Yavuz Sultan Selim meskitako lorategietan. Auzo honetako emakumeek txador beltza janzten dute, goitik behera erabat estaltzen dituen, eta gizonek, janzkera erabat islamiarra, alkandora zuriz, txanoz eta galtza

**Nisantasiaren
antipodetan, eta
garai eta denbora
zehaztugabe batera
bidaiarekin,
Çarsamba auzo
txiki dago,
turismo gidek
aipatu ere egiten ez
dutena**



Lerroon gainean, goitik behera, emakume bat eskuan duen hennazko tatuajea erakusten, gizon bat fruitu zaporeko pipa bat erretzen eta Çarsamba auzoko mutiko gazte bat. Alboan, goitik behera baita, luxuzko jatetxe bateko terraza Nisantasin, otoitz ostirala Eyüpeko meskitan eta Saudi Arabiako neska gazteak Beyoglu auzo kosmopolitan erosketak egiten.

bonbatxo ilunez osatua. Zuria eta beltza dira nagusi jende apal eta oso erreserbatuaren auzo xume honetan. Ez daude ohituta beren komunitatekoak ez diren pertsonen bisitarekin, eta, beraz, argazki-kamerak ez dituzte oso begi onez ikusten, baina merezi du Istanbul erraldoian hain berezia eta paregabea den leku hau deskubritzea.

Ama batzuk piknik bat prestatzen ari dira eskola ondoko parkean. Udaberriko egun eguzkitsua jana, barreak eta lagunak lore eta jolas artean partekatzeko gonbita da. Parkearen beste aldean haur batzuk futboleak jokatzen ari dira kirol kantxa batean. Gazteen barreek eta oihuek ametak baten ohartarazpena eragin du: gogo handirik gabe egindako interpellazioa da, ordea. Berehala murgildu da-eta berriz piknikerako kideekin zuen elkarriketa sutsuan, zeinak barre txiki lotsatiak eragiten baitzizkien.

KURDISTANERA BIDAIA Gizonezko ahots garratz bat mota eta prezio guztietako alfonbren salmenta iragartzen ari da. Bitartean, furgonetaren atzealdetik, norbait alfonbra horiek jaurtitzen ari zaizkie saltzailearen inguruan zurrunbiloka dabiltzan emakume kurdu batzuei. Negoziazioaldi luze baten ondoren, emakume batek tonu griseko alfonbra handi bat aukeratu du, eta horri eutsi dio, inork kendu nahi izango balio bezala.

Tarlabasi auzo zaratatsu eta herrikoia Beyoglu auzo kosmopolitatik metro gutxira dago, gehienbat kurdu eta ijitoek osatua. Zango bizkorrenei ere desafioa jotzen dieten kale aldapatsuetan kokatuta, bertako bizilagunek kalean egiten dute eguneroko bizimodua. Neskato txiki bat urtebetetze-festa ospatzeko prestatzen ari da kalean, gainerako bizilagunekin batera, eta bere amona zigarroa erretzen ari da, alfonbra batean eserita. Ospakizunak kalera ateratzen dituzte eta herritar guztiek parte hartzen dute.

Haurtxo baten jaiotza izaten da, ijitoentzat, ospatzeko arrazoi nagusietakoa eta horregatik ari da familia bat kide berriaren etorrera goren-gorenean ospatzen. Amonetako bat abesti alai bat kantatzen ari da, oparotasuna irudikatzen duen urrezko gurdi baten ondoan. Festaren bazter batean, haurraren ama, oso emakume gaztea, telefono mugikorrez ari da bete-betean, amaginarrebak mikrofonoari eusten dion bitartean, festarekin zerikusirik izango ez balu bezala.

Kale batzuk behe-rago, oilasko biziz betetako kamioi bat gelditu da. Emakume kurdu batek bat erosi du eta espaloian bertan lepoa moztu dio. Bizitzak betetzen ditu auzo honetako kaleak: auzoak ospe txarra du, baina jende xumea bizi da bertan, besterik ez. Tarlabasin barneratzea Anatolia sakonean bidaia egitea bezalakoa da. Bere hamarnaka muinoen artean hamaika mundu dituen hiria.

Inork ez luke esango hori guztia Beyoglu auzo kosmopolita eta turistikotik ehunka metro eskasera gerta daitekeenik. Bi mundu horiek sei erreiko etorbide batek baino ez ditu bereizten. Tarlabasi hiribidea eta beste hiru kale zeharkatu ondoren, Istiklal etorbide ospetsura iritsi gara. Jatetxe, taberna eta dendaz beteta dago, eta turistak eta biztanleak Istanbulen, milaka urteko hiri honetan, bizi diren mundu ugarietako batez gozatzen ari dira.

GIDA PRAKTIKOA

NOLA IRITSI

Zuzeneko hegaldiak daude Espainiatik egunero Turkish Airlines, Iberia eta Turkiako Pegasus Airlines *low cost* konpainiarekin.

NON HARTU OSTATU

Sultanahmeten dago ostatu eskaintza handiena, auzo turistiko nagusia baita. Bertan daude, besteak beste, Mesquita Urdina eta Santa Sofia.

Ostatu hartzeko beste leku interesgarri bat Beyoglu auzoa da. Turistikoa ere, bertan dago Agatha Christiek ostatu hartu zuen Pera Palace hotel historikoa.

JOAN-ETORRIAK

Istanbulgo auzoak bisitatu ahal izateko, garraio publikoko sare bikaina dago, metroarekin, autobusekin eta tranbiarekin. Egunero Europako aldetik Asiara etengabe igarotzen diren itsasontziak ere badira.

DIRUA

Txanpon ofiziala lira turkiarra da. Gaur egun, trukea oso onuragarria da euroarentzat: euro bat, 16 lira. Auzo turistiko guztietan daude kanbio-etxeak, gauerdira arte irekita.

ANCONA

Adriatikoaren portu italikoa

Testua eta argazkiak: **Xabier BAÑUELOS**







**Itsaso Adriatikoaren italiar hegala-
ren iparraldeko atea da, eta
bertara iristen dira Greziako eta Balkanetako kostarantz
nabigatuz abiatu nahi dutenak. Guasco eta Astagno mendien
magaletan etzaniko Ancona hiria askotan igarobideko portua
besterik ez da, berari ez ikusiarena eginez ferryan ontziratu
nahian dabil-
tzan bidaiarien joan-etorri zurrunbilotsuaren
lekuko isil eta ulerkorra. Geldialdia egin eta bertako harrizko
kalexketan barneratzea erabakitzen dutenei, ordea, eskuzabal
oparitzen die bazter zoragarrien sorta eder askoa.**

Milaneetik iritsi gara Anconara. Bertan ontzi-
ratu nahi dugu, Greziako ipar-mendebaldeko
atea, Ingumenitsa, jomugan daukagula. Beste
bidaiari askok legez, lehenbailehen igo nahi
genuen ferryra, Adriatikoko uretan bidea
urratuz hegoalderantz jotzeko. Anconako Zi-
riako gogora etorri, ordea, eta jakin-minak
gaina hartu zion hasierako asmoari. Ziriako
gizon errenazentista bat izan zen, errenazentista bai garaia-
gatik eta bai ja-
rreragatik. Humanista eta polifazetiko, bidaiaria, poliglota, ilustratzailea
eta historia eta kultura klasikoaren ikasle eta zale amorratua. Gaur egun
arkeologiaren aitzindarietakotzat dugu. Idazle ere izan zen, baina bere obra
betiko galdu zen 1514an Pesaroko sforzatarren liburutegia eta handik ur-
tebetera hiriko artxiboa kiskaldu zituzten sugarrek irentsita. Hala, bada,
Ziriakoren lanik irakurtzeko aukerarik izan ez dugunez, haren hiria eza-
gutzeko geldialditxo behintzat egin behar genuen, ezinbestean. Tira, eta
zinemazaleak ere bagarenez, aitortu behar dugu Virna Lisik ere zeresana
izan zuela erabaki horretan. Izan ere, handik gertu jaio zen, Iesi izeneko
herri txiki batean, 30 kilometrora, eta seguru asko Ancorako kaleetan ibi-
li-
ko zen hura ere.

Uztaileko goiz bat da. Hiriak logaleturik egin digu harrera, uda beteko sar-
goritan, bere portuaren inguruan kiribilduta, hasperenka, bero sapa nola-
bait arinduko duen itsas haizearen etorreraren zain balego bezala. Jarduera
handirik ez dago. Ibilgailuak eta pertsonak, ontziratze-
ko txandaren itxa-



Erreportajeari hasiera ematen, Anconaren ikuspegi orokorra kaitik. 18. orrian, hurrenez hurren, Plebisizituaren plaza San Domeniko eliza erdian duelarik eta portu gaineko etxe eta kalekak. Goian, ezker-eskuin, Merkatarien Logia, Santa Maria de la Piazza eta alde zaharrean estilo eta garai ezberdinetako eraikinak. Lerro hauen gainean, arrantza portua; eta, aldamenean, Sakramentu Santuaren tenpluaren elize formako dorrea.



rote nagian, askoz gehiago ez. Badakigu, ordea, haxe dela Mediterraneoaren alde honetako porturik garrantzitsuenetakoa, bidaiari kopurua dela-eta, salgaien bolumena dela-eta, baita arrantza portu gisa ere. Eta zaharrenetako bat ere bada; hain zuzen, 2.500 urte baino gehiagoko historia dauka. Bertan kokatu ziren pizenoar edo sabelikoak, hau da, antzinate hartan K.a. IX. mendetik kostaldearen eta Apeninoen artean bizi izan zen osko-umbriar herria. Greziarrak geroago iritsi ziren, K.a. 387. urte inguruan. Dionisio I. tiranoaren uztarpetik ihesi iritsitako sirakusarrak ziren. Hiria sortu eta Ankon izenarekin bataiatu zuten: «ukondoa» esan nahi du, oso izen aproposa bere geografia kontuan hartuta, itsasoari bizkarra ematen dion badia batean babestuta dagoelako. Guascon eraiki zuten beren akropolis, hiria kulunkatzen duten bi mendixketako batean. Beste muinoa Astagno da, eta hantxe eraiki zen gerora zitadela, gaur egun parke publiko dena. Bi mendixketan gora eginez eta bien artean hedatzen da alde zaharrena; hirigune berria ekialderantz lerratuz doa, urdinak ostertzarekin nahasten diren lekurantz.

PORTUTIK GUASCORA Ancona Markak eskualdeko hiriburua da. Hiriburua txikia da, ordea, ehun mila biztanle eskas. Lehorrean dago, baina dena zor dio itsasoari. Bere arradaren babesean hazi zen heleniarren, erromatarren, karolingioen garaian... Itsas errepublika gisa nabarmendu zen Veneziarekin lehian, eta bertako abra Estatu Pontifizioen parte izan zen. Dartsena ere izan zen Italiako Erresumari atxiki zitzaionean XIX. mendean, eta gaur egun ere bada. Horregatik guztiagatik, historiarekin zor poe-

**Fontana del
Calamo iturri
manieristan, ura
brontzezko hamabi
satirok eta harrizko
batek isurtzen dute
ahoaan duten
tutuaren bidez, eta
handik edaten
duena hirira itzuli
egiten dela esaten
dute.**

tiko baten gisa, gure ibilbidea kaian hasi dugu. Lazzairetoren parean abiatu gara. Mole Vanvitelliana izenarekin ere ezagutzen dena eite militarreko eraikin pentagonala da, uharte gisa kokatua itsasontzien amarralekuen parean. 1732. urtean diseinatu zuen Luigi Vanvitellik gotorleku, biltegi eta berrogeialdietarako eremu gisa, eta gaur egun kultur zentro bat da. Malekoiaren ondoan ibili gara. Porta Pia barrokoaren ondotik igaro gara lehenik, eta Trajanoren estatuaren ondotik gero, Errepublika plazara iristeraino. Han, Musaren antzokia dago, galtzada-harrizko zorua duen espazio irregular batean. Fatxada neoklasikoan arkupeak eta haren gaineko zutabeak nabarmentzen dira, eta kontraste bitxia sortzen da barroko berantiarreko Sakramentu Santuaren elizako kanpandorrearekin, zehazki, haren zurubi gisako pinakulu jostariarekin.

Itzal zaharrez trinkotutako amarauneko kaleketan abiatu gara eta plaza-
ren inguruan harribitxi batzuk aurkitu ditugu. Merkatarien logiako fatxada
gotiko ikusgarria nabarmentzekoa da. Benicasa jauregiarekin bat egiten
du arku ojibalen errenkada baten eta leihate bikoitz trilobulatuaren segida
baten bidez. Leihoak alfiz ojibaletan enmarkaturik daude, baina erdi-pun-
tuko arkuekin errematurik. Bestalde, Saint Agostinoren eliza gotikoa ere
aurkitu dugu, baita Bosdar jauregia ere, gaur egun Pinakoteka Zibikoaren
egoitza. Hainbat artistaren obrak daude bilduma horretan, hala nola: Oli-
vuccio di Cicarello, Francesco Podesti, Arcangelo di Cola eta Andrea Lilli
L'Anconitano. Giuseppe Garibaldi corsoan aurrera eginez, Erroma plazara
iritsi gara. Oinezkoentzako eremu zabal honetan azoka postuak ipintzen
dituzte, Belarren Merkatu modernista eta burdinezatuaren ondoan. Erai-
kin hori osatzeko “Erzherzog Franz Ferdinand” austriar korazatuaren me-
tala erabili zuten, I. Mundu Gerran hiria bonbardatu zuen ontziaren aurka
mendeku xumea-edo hartuz.

Giuseppe Mazzini corsotik itzuli gara, eta Fontana del Calamo iturri ma-
nieristan gelditu gara pixka bat freskatzeko. Ura brontzezko hamabi sati-
rok eta harrizko batek isurtzen dute ahoaan duten iturri tutuaren bidez.
Handik edaten duena itzuli egiten dela esan digute, eta guk itzuli egin nahi
dugunez, edan egin dugu. Plebisituaren plazaraino jarraitu dugu oinez,
eta han aurkitu dugu Dorre Zibikoa eta bere erloju potoloa, baita San Do-
menikoren elizaraino igotzeko eskalinata ere, alboetan arrampak dituen.
Handik atera eta San Pedroren Atea zeharkatu dugu, eta bere kantoitik ku-
kuka bezala atzeman dugu Camerata jauregia. Jarraian, Plazako Santa
Maria xarmagarria, Pisako erromaniko estiloko fatxada duena, eta San
Francesco de la Escalako ataurre gotiko-errenazentista harroa. Beste ate
bat zeharkatu dugu, Porta Cipiana delakoa, eta beste zenbait txoko txun-
digarriarekin egin dugu topo. Batetik, Stracca plaza, eta bertan, Jesusen Izen
Santuaren elizako pronaos kurbatu solemneak barroko berantiarreko eite
horrekin aurrez aurre dauka Agureen jauregiko nahasketa erromaniko, go-
tiko eta manierista anabasatsua. Bestetik, Senatuaren plaza. Senatuaren
jauregiko erromaniko preziosista bere distira guztian agertzen da Pelle-
grino eta Teresa Santuen elizako kupula berdearen parean eta Ferreti jau-
regia ondoan duela, egungo Museo Arkeologikoa.

GUASCOTIK GROTTA DEL PASSETTORA Guasco mendixkan gora
abiatu gara. Tontorrean Ziriako Santuaren katedrala dago, hiri guztia oin-

pean hartzen duten begiralekuen artean. Garai batean, bertan, Afrodita Euploiar eskainitako tenplu bat egon zen, nabigatzaileen zaindaria baitzen. Haren hondakinen gainean kristau basilika bat eraiki zuten VI. mendean eta batzuek uste dute eraikin paganoaren jatorrizkoak direla barruan dauden zutabe erromatarrek, buruan kapitel bizantziarrak dituztenak. Egungo eraikina XI. mendeko hedapenen emaitza da; orduan hartu zuen estilo erromanikoa nahiz eta greziar gurutzearen eiteko oinplanoa duen, ekialdeko kulturen eraginaren isla eta Goi Erdi Aroko Italian ohiko samarra. Ataurrea, ordea, gotikoaren bidetik doa. Elizari atxikia apezpiku jauregia dago. Bertan hil zen Pio II. aita santu atipikoa, 1464an.

Ekialderantz bideratu ditugu urratsak eta nolabait munta handiagoko lehenengo erromatar aztarnak aurkitu ditugu: anfiteatroa. Anconan greziar eta erromatar ondarea ez da bereziki oparoa, eta anfiteatroan ere eskalinataren puska bat eta arku bat besterik ez da geratzen, lehen garai inperialekoak, zehazki. Ondoa dute, zaindari, San Gregororen eliza xumea, Barroko garaitik. Aurrera jarraitu dugu, itsasargietaraino, Vecchio eta Nuovo, eta hortik Cardeto parkera iritsi gara, San Pablo bastioitik eta Cardeto gotorlekutik igarota. Ibilbide tarte horrek ezker-eskuin sekulako ikuspegiak eskaini dizkigu etengabe hiriko etxeen gainean, badiaren gainean eta Adriatikoko uren urdin aldakorren gainean. Hiriko alde modernora jaitsi gara, eta beste kosta parez pare harrapatzera joango gara: itsasoari inolako babesik gabe hozka egin eta goitik behera uretara amiltzen den aldea.

Grotte Azul eta Grotte del Passeto haitzuloen artean, amildegiaren gainetik joan gaitezke edo beheko aldetik. Bigarren hori hautatuz gero, paretaren eta itsasoaren arteko pasabide estua zeharkatuko dugu, eta harkaitzaren oinetan dauden haitzulo sorta koloretsuarekin –batzuk txiringito eta beste batzuk ontziraleku bihurtuak– eta lasai bainatzeko moduko kala apartekin ederki disfrutatuko dugu. Goiko aldetik joanez gero, ekialdera ematen duen begiraleku amaigabe moduko batean egingo dugu bidea. Tarte horretako punturik enblematikoena I. Mundu Gerrako Erorien Monumentua da. Bertakoentzat il Monumento besterik gabe, Guido Ciri-lliren lana da monoptero moderno hori. Bertatik viale della Vittorian barrera, Cavour plazara iritsi gara. Aurretik, ordea, pixka bat desbideratu egin gara, Santa Maria della Misericordiara joateko. Lehen urratsak egiten ari zen errenazimentuak apaindutako ataurreak, horrenbeste merezi du. Eta azkenik, esan bezala, Cavour plazan amaitu dugu. XIX. mendearen hondarreko eta XX.aren hasierako jauregiek ixten duten lau angeluko plaza hiri zaharrak eta modernoak topo egiten duten lekua da.

Egin beharrekoak eginda, kaira itzuli gara. Antzinako erromatar portuaren arrastoetara eta Trajano eta Klementeren garaipen arkuetara. Aurrenekoa Senatus Populusque Romanus delakoak eraiki zuen lehen mendearen hasieran, hispaniar enperadoreari esker ona adierazteko portua handitzeko egindako lanengatik. Bigarrena XVIII. mendean altxatu zuten Klemente XII. aita santuaren omenez, Anconari portu aske titulua eman baitzion. Hemendik aurrera, ilunabarraren zain geratuko gara, izarrak banan-banan nola pizten diren ikusteko, badiari begira Fontana dei duo Soli iturriaren ondoan.

GIDA PRAKTIKOA

ALDIRIETAN

Handik nahiko gertu daude Forte Garibaldi, Begiraleku Astronomikoaren ondoan, eta Altavilla eta Pezzoti gotorlekuak.

Oinez paseatzeko eta hondarretan eta uretan murgiltzeko gogoz egonez gero, Conero Natur Parkea dago: ibilbide politik ez ezik, kala eta hondartza txikiak daude, adibidez, della Vela, baita itsasotik iristekoak diren beste zenbait ere, hala nola Sasi Bianchi, Forni, dei Gabbiani, due Sorelle eta della Marchesina eta azkenik, hondartzarik handienak eta jendetsuenak, hau da, Bonetti, Sasi Neri, San Michele eta Urbani.

NOIZ JOAN

Urte sasoi guztiak egokiak dira, baina aukeran nahiago udaberriaren bukaera eta udazkenaren hasiera. Udan bero kiskalgarria egin dezake.

ZENBAT EGUN

Egun batekin nahikoa da funtsezkoena ikusteko. Pixka bat hobeto ezagutzeko eta hondartzaren bat edo beste disfrutatzeko, bi edo hiru egun hartu behar dira gutxienez.

INFORMAZIO ZENTROA

Ezagunena Erroma plazakoa da.



Mae Klong

Trenak eteten duen merkatua

Argazkiak: **Manan VATSYANYANA** | AFP



Bangkok hiriburuak gordetzen dituen hamaika bazterrekin eta paradisuzko irletako ur gardenekin lehian, Mae Klong-eko trenbidearen gaineko merkatua Thailandiako tokirik bisitatuenetako bat da. Bertakoentzat, tokiko produktuak erosteko gunea; bisitariarentzat, beste inon aurkitu ezin den ikuskizun paregabearen eszenatokia.



Trenaren txistua gertu antzeman eta istant batean Bangkoketik 90 kilometrora kokatzen den merkatu honen eguzki-oihal guztiek, adeitasunez-edo, altxatu eta bidea libre uzten diote, banan-banan, bagoi-ilarari. Abiadura biziz, bertatik pasatu direnak, merkatuan saltzaile-lanetan dihardutenak eta fruitu eta barazki postuak doi-doi igurtzi ditu trenak. Erritua egunean sei-zortzi bider errepikatu ohi da. Horrenbestez, “Hoop Rom (aterki / parasol-itxiera) merkatua” izenez ere ezagun egin da Mae Klong Railway Market deituriko azoka thailandiar hau.

Begiratu hutsean eta iritsi berrientzat kaotikoa ematen badu ere, ko-reografia baten antzera, obra honetan parte hartzen duen dantzari bakoitzak badaki zer mugimendu egin behar duen trenaren txistua entzundakoan. Samorn Armasirik 1970etik postu bat du bertan eta ez du istripurik gogoan. Izan ere, burutsuki, salmahaiek gurpilak dituzte eta trenbidearen bi aldeetara banatzen dira. Arretaz gorde diren letxuga, itsaski, jengibre eta piperren gainetik pasatzen da trena eta produktu guziak onik ateratzen dira aldi oro.

Ehun metro luze dituen merkatu mugikor hau 1905. urtean sortu zen, burdinbidea Samut Songkhram probintziara iristearekin batera. Bertako produktuak aurki daitezke soilik –elikagai freskoak, mota guztietako arropa, zenbait oroigarri...–, nahiz eta atzerriko jende ugari biltzen den, saltzaile batzuen atsekaberako. Mae Klungeko geltoki-buru Charoen Charoenpunen esanetan, espazio honen erakargarritasuna, hain zuzen, «fabrikatutako produktu bat, hau da, turistentzat sortutako zerbait» ez izatean datza. Benetako tradizio, kultura eta gastronomia thailandiarraz gozatzeko aukera paregabea, hortaz.

Koronabirusa dela-eta bi urteko geldialdia izan du, baina bizi-bizi dago berriz Thaiandiako lekuri fotografiatuenetako hau. «Koronabirusaren itxialdiekin, langileen soldatak estu eta larri pagatzen nituen. Egunean hamar arrain baino ez nuen saltzen», agertu dio AFP agentziari 1988tik saltzaile den Somporn Thathomek. «Aurrezki guztiak gastatu eta bankuari mailegu bat eskatu behar izan nion».

Hamabi orduz, goizeko 6etatik arratseko 6tara, egoten da irekita azoka, eta trenak goizetik arratsalderako tartean, 8:30, 9:00, 11:15, 11:30, 14:30, 15:30 eta 17:40ean, igarotzen dira Mae Klong-Ban Laem trenbidearen puntu honetatik.

ERANTSITAKO BISITA Trenbidearen gaineko merkatua liluragarria da. Bangkoketik hurbil egin daitekeen bisitarik bitxienetakoa, abantaila bat duena, gainera: Damnoen Saduak eta Amphawa ur gaineko merkatu ospetsuetatik ordu laudenera dago. Aparteko bi ikuskizun, baten trukean.





CHIRRIPO

Costa Ricako sabaia eta Talamancako ikurra





**Chirripo Talamanca mendikatean
dagoen mendi eder baten izena da.
Costa Ricako puntu gorena da, eta
egun oskarbietan bere gailurretik
Ozeano Barea eta Karibe itsasoa ikus
daitezke, hego-mendebaldera eta
ipar-mendebaldera begiratzuz,
hurrenez hurren.**

Testua eta argazkiak: **Xabier AMOROS OSKOZ**

Talamanca mendikatea Costa Rica eta Panama artean kokatzen da, eta bi herrialdeetako puntu altuenak biltzen ditu. Baso aberastasun itzela eta goreneko sistema ekologikoa duenez, Unescok gizateriaren ondare izendatu zuen 1983an. Lurralde zabal horretan askotariko fauna dago, munduko felido mehatxatuenetako bi, esaterako: puma eta jaguarra. Chirripo (3.820 metro) mendia igo ahal izateko, San Jose hiriburutik hiru bat ordu ekialderantz egin behar dugu, San Isidro de El General hirirantz –Perez Zeledon kantonamenduko hiriburua hauxe–. Haranzko bideak herrialdeko geografia berde eta bihurtunetsua erakusten digu, eta San Isidrok okupatzen duen haran handira iristeko, mendi errepideetan barrena malda handiak gainditu beharko ditugu, gidariaren pazientzia eta trebezia aurrez aurre jarritz. San Isidro komunikazio korapilo oso garrantzitsua da edo, bestela esanda, Amerikako zilbor heste asfaltatu garrantzitsuenak, Panamerikar errepideak zeharkatzen duelarik. Hemendik San Gerardo de Rivasera joan beharko dugu, mendien bihotzean kokatutako herrixkara –gutxi gorabehera beste ordubete–.

CHIRRIPOREN IGOERA Ohiko ibilbidea bi etapatan banatzen da. Lehenengoan, 14,5 kilometro eskasean, 2.000 metrotik gorako desnibel positiboa gainditu beharko da, Crestones aterperaino. Bigarren egunean gailurrera iritsiko gara eta, ondotik, San Gerardorainoko jaitsiera dator: 20 kilometro baino gehiagoko distantzia eta 2.500 metrotik gorako malda



Ibilbide hau oinez egiteak dakarren ahalegina argi eta garbi saritzen dute flora eta faunaren arteko lotura harmoniatsuak oparitzen dizkigun ikuspegi bikainek.





duen jaitsiera bortitza. Chirriporen igoera ez da teknikoki konplexua, baina oztopoz betea dago. Zailtasunak bi alderditan laburbiltzen dira: burokrazia eta desnibela. Cerro Chirripo izen bereko parke nazionalan dagoenez, arauturik dago bere igoera eta zenbait jarraibide betetzea ezinbestekoa da. Asko kostata lortu genituen guk baimenak, eskari eta betebeharrak guztiak, izen-ematea eta ordainketak, bitarteko telematikoen bidez egin behar baitira derrigor. Inork ez dizu telefonoa hartuko, ezta gobernuko inongo bulegotan arreta emango ere. Gauzak horrela, San Gerardo (1.370 metro) iritsitakoan egin behar dugun lehenengo gauza parke nazionalaren arduradun den MINA Eren eta Tokiko Partzuergoaren bulegoetara hurbiltzea da, gure erreserba balioztatu eta aterpetzeko egonaldia programatu ahal izateko.

Bigarren zailtasuna mendiaren ezaugarrietan datza: munduko gailur handienetako baten aurrean gaude, planetako 38. tontorra, hain zuzen ere. Ibilbideak, horregatik, ez du errukirik ibiltariarekin. Lehenengo etapan, esan bezala, 2.000 metroko desnibela gainditu behar dugu 14,5 kilometroko tartean. Distantzia titaniko horri gehitu beharko litzaioke San Gerardoaren eta ibilbide hasierako puntu zehatzaren ("Termometro") artean dauden 2 kilometroak. Galtzerik ez dago, mugari adierazgarri zedarritutako desnibel handian gora egiten du bidezidor horrek. Gaindituko dugun kilometro bakoitzari kilometro mugari bat dagokio. Horrela agertzen dira gure begi eta hanka nekatuen aurrean Los Monos (1.739 metro), Fila Cementerio de la Máquina (1.890 metro), El Jilguero (1.990 metro), guztiak oihan sakonean murgilduta. Zazpigarren kilometroan (2.519 metro), lurra leundu egiten da, izen bereko babeslekuaren ataria den Llano

**Chirripo izenaren
esanahi indigena
«betiereko uren
lurra» da eta, hala,
gailurretik begien
aurrean zabalduko
zaizkigu duela
25.000 urteko era
askotako glaziar,
morrena, laku eta
zirkuen aztarnak**



Bonito toponimoari ohore eginez. Egunaren erdian gaude eta aterpe honetan ura eta komunak ditugu. Irekita egonez gero, beste zerbait hartzeko parada ere izango dugu. Oihan tropikalean murgildurik berriro, ez da harritzekoa tximino ulukariak topatzea inguru honetan, eta hegaztiak gure inguruan burrunbaka ibiltzea dantza tropikal etengabe batean. Metroz metro altuera irabazten jarraituko dugu, Cuesta de los Arrepentidos (3.200 metro) delakora iritsi arte, aterpetxetik kilometro eta erdira. Izena adierazgarria da eta oihan tropikalak alpetar basoari dagokion zeruertz zabalago bati bide ematen dion lekua da. Azken ahaleginari esker, gure helmugara iritsiko gara, Crestones babeslekura (3.400 metro). Honaino igotzeko 7-8 ordu gogor eman ditugu.

PAISAIA IKARAGARRIA Crestones mendi aterpea haran batean dago, Talari ibaiaren ondoan eta Costa Ricako ikur ospetsuenetako bat den Los Crestones soslai berezi eta errepikaezinaren azpian. SINACek (Costa Ricako Kontserbazio Eremuen Sistema Nazionalea) kudeatzen duen eraikin handi baten aurrean gaude, mendizaleari arreta emateko beharrezko zerbitzu guztiak dituen. Cerro Chirripo igotzen den ia mundu guztiak gutxienez gau bat egiten du aterpe horretan, hori egin ezean, ausartegia izango litzatekeelako egun bakar batean betetzea bete beharrekoak: 40 kilometrotik gorako distantzia eta 2.500 metrotik gorako desnibela.

Chirripo mendia izen bereko parke nazionalaren barruan kokatzen da, eta Costa Rica eta Panama artean hedatzen den Talamancako mendikate zabalaren zatia da. Costa Ricako beste inon ikus ezin daitezkeen paisaiak eskaintzen dizkio bisitariari, jatorri glaziarreko aintzira ugariak barne. Chirripo mendiaren ondoan beste gailur esanguratsu batzuk ere badaude, hala nola Ventisquero, Uran edo Terbi. Horiek guztiak aterpetxetik bertatik egin daitezke, baldin eta behar den denbora hartzen badugu.

Chirripo izenaren esanahi indigena «betiereko uren lurra» da. Izan ere, leku honetan era askotako glaziar, morrena, laku eta zirkuen aztarnak aurki ditzakegu, duela 25.000 urte inguru bertan ziren izotzezko plaka handien igarotzearen lekuko.

Gainerakoan, Chirripo igotzeak ez du bigarren egun honetan ahalegin handirik eskatzen. Bidea argia eta agerikoa da, eta poliki-poliki gure mendiaren behealderaino hurbilduko gaitu. Hori bai, tontorraren azpian gaudenean, igoera gogorragoa bihurtzen da, eta harrizko lursail bertikal batean zehar egin beharko dugu gora. Ordu gutxi barru gailurrean izango gara. Saria bikaina da eta ikuspegiak lau puntu kardinaletara zabaltzen dira. Gailurretik, inguratzen gaituen paisaiaren glaziar jatorria ikusi ahal izango dugu, aintzira-urezko arrosario bat gure begien aurrean zabaltzen delarik.

Denak amaia du, ordea, eta, kontu handiz, jaisten hasi behar dugu. Crestones aterperaino emeki-emeki joanez, bazkaltzeko, gure puska guztiak biltzeko eta San Gerardora jaisteko. Kontuan hartu jaitsiera hau benetan gogorra dela, gailurrerako igoera bera baino askozaz gogorragoa. Baina, argi dago, argi dagoenez, ez da arantzarik gabeko arrosarik. ¡Pura vida! («Bizitza hutsa!», ticoz).

GIDA PRAKTIKOA

NOLA IRITSI

Iberiak hegaldi zuzenean lotzen ditu Madril eta San Jose. Hemendik San Isidro de El Generaleraino joan beharko dugu hiru orduko ibilbidean. Ondoren, San Gerardo Rivaseraino -ibilbidearen hasiera- autobus lineak daude. Gomendagarria izan daiteke auto baten alogera.

NOIZ JOAN

Costa Ricako klima aurreikusi ezin daitezkeen arren, garai lehorra abendutik apirilera bitartekoa da. Hala ere, urriaren amaieran joan ginen gu.

NON HARTU OSTATUA

San Gerardo de Rivasek ostatu hartzeko hainbat hotel eta ostatu ditu: El Pelicano, Uran, Roca Dura eta Hostel Chirripo, besteak beste. Bertan bazkaltzeko edo afaltzeko aukera dago ere. Herrian supermerkatu txiki bat ere bada: Las Nubes “hornitzailea”.

BAIMENEN KUDEAKETA

Parke nazionalerako sarrera eta Cerro Chirriporako igoera SINACen web orriaren bidez (www.sinac.go.cr) kudeatu behar dira. Crestones mendi aterpean ostatu hartzeko, eskatzen diren baldintzak bete behar dira. Kudeaketa www.chirripo.org web orriaren bitartez ere bideratu daiteke.

HUAHINE

Polinesiako altxor ezkutua







Testua eta argazkiak **Urtzi URRUTIKOETXEA**

Polinesiako txoko berezienetako bat da Huahine, Tahiti eta Bora Bora artean, Sozietate uharteetan. Irla txikia da, biztanle gutxikoa, eta bisitariak ere kopuru txikietan izan ohi ditu. Itsasoa, oihana, arkeologia eta patxadaz bisitatzeko herrixkak, inguruko uharteetan turismorik ez zegoen garaietan ohi zen antzera.



Huahine bi uharte dira, bakarraren prezioan: Huahine Nui edo Handia iparraldean dago, eta Huahine Iti edo Txikia hegoaldean. Zubi dotore batek elkartzen ditu biak Bourayne eta Maroe (Mārō'ē, tahitieraz) badien artean doan itsas pasabide estuaren gainetik; alde batera zein bestera koralezko arrezifeak babestutako aintziraren turkesa koloreko urak ageri ditu.

Antigoaleko polinesiarrek kolonizatu zuten lehen uharteetako bat izan zen Huahine; badira IX. mendea baino lehenagoko erregistroak. Zalantzarik gabe, uharteek bazuten esangura bereziren bat garaiko biztanleentzat, Frantziaren menpeko Polinesia guztian beste inon ez baita hemen beste marae edo tenplu zahar biltzen.

Irlaren iparraldean dagoen aireportutik hegoaldeko muturreko Hiva hondartzaraino 23 kilometro dira mendebaldeko kostaldetik. Ekialdeko badia eta bihurguneetan ibiliz gero, luzeago egiten da, baina oso txoko ederrak ezagutzeko parada dago. Guztira, 60 kilometro inguruko itzulua dago bi Huahine irlen inguruan. Iritsi eta berehala, Fare “hiriburuko” moilatik begira Tavaiura mendiaren ingerada bitxiari erreparatu diogu, oihanez estalita; haurdun dagoen emakumea dela dio kondairak, burua, bularra eta sabela bereizten zaizkion tontorrekin.



38. orrialdean, Tavaiura mendia haurdun etzanda dagoen emakumearen ingeradarekin lotu izan da. Lerro hauen gainean, Huahine ekialdean, Manunura doan zubitik arrantza teknika zahar bezain berezia nabari da, V itxuran paratutako harriekin. Hurrengo orrialdean, berriz, Anini Marae, koralezko bloke handiz osatutako gunea, uhartearen hegoaldeko muturrean, Anini eta Hiva hondartzen parean. Azkenik, 42-43. orrialdeetan, Maroe badia lasaia, Huahine handi eta txikien elkargunean.



Herri atsegina da Fare, txikia eta praktikoa. Badu supermerkatua, baita ostatu, bungalow eta jatetxe batzuk ere, eta garraiorako alogera zein itsasoko txangoak, izan arrezifearen inguruko motu irletara, zein urpea ezagutzeko. Egiteko askorik izan gabe ere, litekeena da bertatik pasatzea uneren batean, erosketak egiteko edo ilunabarrean afaltzeko, esaterako. Saltzaileek postu txikiak jarri ohi dituzte kale nagusian, arrain freskoak, fruitu eta barazkiak eta baita olio medizinalak ere saltzeko. Noizean behin, herririk urrunenetako txalupak datoz, erosketak egiteko eta lagunekin solasean egoteko txokoa baita.

ONDARE ARKEOLOGIKOA Aireportuaren eta Fauna Nui aintziraren hegoaldean joanda iritsi gara ostatura; Tifaifai kafetegiak lotarako aukera ere ematen du arrezifeari begira, koralezko lorategiaren aurrean. Uretatik ostatura eta buelta, dulce far niente edo egonean lasai egoteko, askorik egin gabe, aukera ederra da. Inguruan altxor paregabeak ditugu, horratik: arrezifearen urpeko mundu ikusgarriarekin hasi, eta ur azaleko ondare aberatsera. Marae Manunu tenplua, adibidez, kilometro bakarrera dago, paseo labur batean. Faretik datorren errepidearen inguruan, berriz, beste harribitxi garrantzitsu batzuk daude, Manunutik hurbileko zubitik ikus daitekeenez: arrantzarako erabiltzen diren kaiolak ageri dira uretan. Harriak pilatuta «V» forma ematen zaie ibaian eta erraz antzematen zaie zubi



**Uhartearen
hegoaldean are
jende gutxiago bizi
da, ia autorik ikusi
gabe segi liteke
ibilbidea, eta
horrexegatik ere
bizikletaz egiteko
gune aproposa da**

gainetik, arraina kaiolaraino zelan bideratzen zuten ideia izateko. Egun ere erabiltzen da arrantzarako teknika hori.

Faretik etorrira, bestelako geltoki ugari ditugu metro gutxiren buruan. Erdibidean, esaterako, Mont Tapo tontorreraino igotzeko bidezidorraren abiapuntua, ordu eta erdian 429 metroko mendiraino heltzeko eta irlaren ikuspegi bikaina izateko. Uharteko gune arkeologiko ezagunenetakoa aurreraxeago dago: Fare pote'e maeva izenekoa, hain zuzen ere. Maeva Huahineko antzinako hiriburua izan zen, eta gune honetan lau marae daude; antzinako polinesiarren tenplu edo elkarguneak ziren, txikiak batzuk, familiarentzako aldareekin, eta handiagoak beste batzuk, buruzagienak kasu, hainbat jainkorentzako gurtze gune eta guzti. Fare pote'e, berriz, horma biribileko etxebizitza mota tradizionala zen. Egun, kulture gune eta museoa da, bai uhartekoentzat, dantza eta bestelako ikastaroetarako, bai bisitariak ezagutzeko. Aldamenean, banillaren etxea dago. Polinesiako txokootan ia berezkoa dirudi espezia honekin loturak, baina ez da bertakoa jatorriz, Mexikokoa baizik. Edozelan ere, uharteotako leku batean baino gehiagotan ezagutu daiteke banillaren prozesua.

AINGIRA SAKRATUAK Huahine Iti edo hegoaldeko uhartera garamatzen zubira heldu aurretik, beste bizpahiru geltoki daude: lehendabizi, perlen etxaldea. Faie herrixkara iritsi baino lehentxeago dago; zehatzago esanda, aintziraren erdian, motu Vavaratea aurrean altxatutako eraikina joateko ontzia abiatzen den moila. Prozesu guztia ezagutzeko edo perla horiekin egindako bitxiak ikusteko aukera ederra da.

Huahineko protagonista ezagunenetakoak begi urdineko aingira sakratuak dira; hildako huahinetarren izpirituen eroale dira, bertako sinesmenen arabera. Faie herrixkako errekan daude, eta turista batzuek –baita herriko umeek ere– oinak uretan sartu eta jaten eman ohi diete. Faie utzita, errepidea kostaldetik urruntzen da aldi batez, mendian gora eginez kilometro pare baterako, eta beste horrenbeste behera, Maroe badiaraino. Bidearen erdian, mendate gainera iritsitakoan, badia guztiaren paregabeko ikuspegi dago.



GIDA PRAKTIKOA

NOLA HELDU

Tahititik 40 minutuko hegaldi laburra dago, Sozietate uharteetara doazen hegazkinetan (Raiatea, Bora Bora edo Mooreara, esaterako). Tahitiraino, berriz, Europatik Parisen barna joan ohi da, Los Angelesen geldialdia eginda. Beste lotura posible batzuk Tokio, Seattle, San Frantzisko eta Auckland dira.

OSTATUA

Huahineren gauza atseginetako bat bertako patxada eta turismo askorik ez egotea da, baina horrek aurretiaz erreserbatzea dakar. Hotel gutxi batzuk eta zenbait ostatu eta aterpetxe daude, baita kanpin bat ere, Hiva hondartzan bertan.

GARRAIOA

Ez dago garraio publiko askorik, Fare-tik herrietara doan “Le Truck” baino ez, gehienetan taxiz edo ostatuarekin adostuta egiten da aireportutik garraioa. Autoa, motorra edo bizikleta alokatzea da uharteko txokoak bisitatzeko modu onena, trafiko gutxi egon ohi denez.

Uhartearen hegoaldean are jende gutxiago bizi da, ia autorik ikusi gabe segi liteke ibilbidea, eta horrexegatik ere bizikletaz egiteko gune aproposa da. Huahine biak lotzen dituen zubia herritarren topagune izan ohi da asteburuetan, besteak beste, handik goitik uretara jauzi egiteko. Zubia igarota, Huahine Itin paisaia are ederrago bihurtzen da; errepidearen luzeran palmondoak, eguzkiak argitutako aintziraren ertzean goazela, Maroe badiatik. Segidan, Murimaora motu edo irla luzea ageri zaigu parean, arrezifea ixten. Bat-batean itsasoak urdin tonu guztiak hartzen ditu; hala, Tefareriitik arnasa kentzeko ikuspegia dago: urrunean ozeano zabalaren urdin iluna eta haren olatuen aparrak arrezifearen aurka apurtzen; koralezko marratik kostalderaino, berriz, aurrez aurre hedatzen zaigu ur turkesa bizia.

HEGOALDEKO ALT XORRAK Halaxe iritsi gara Parea eta Mavea badia ederreneko hondartza eta kala sinestezinetaraino, uhartearen hegoaldeko muturrean. Lehen herrixkan Le Maison du pareo edo Pareoaren Etxea dago, motibo ederreko oihalak nola egiten dituzten erakutsi eta nahi duenak erosteko. Hiva hondartza eta Polinesiako kanpin bakarretakoa ere hemen daude, Araara motu irlaren aurrez aurre; eta mosaikoa osatzeko, ezin beste marae tenplu bat falta. Anini Marae Huahine guztiko lekurik ikusgarrienetakoa dago, koralezko bloke handiz osatuta harea zuriko hondartzaren parean. Oro gerraren jainkoari eta Hiro lapurren eta mari-nelen jainkoari eskainitakoa da. Anini hondartza ere oso leku atsegina da, sakonera gutxi dauka itsasoak bertan eta bare egon ohi da; horregatik, picnic egiteko txoko kutunetakoa da askorentzat.

Huahine hegoaldeko eremu hau guztia arrezifeak mugatutako ur ederrez osatuta dago, koralez eta itsas faunaz gozatzeko eremu paregabea. Mendealdeko tarte Aavea badiari dagokio; hareatza estu bezain luzea da, ia uretaraino iristen diren jateko hiruzpalau txoko gozagarri, eta maskara eta tuboa hartuta snorkel egitera etengabe gonbidatzen duten ur ikusgarri-josita bazterrak. Urpeko ikuskizuna ere lehorretik edo ur azaletik dirudiena bezain txundigarria da: koloretako arrainak, koralezko forma bitxiak sakonean eta ikuskizunaz lasai gozatzeko aukera, lehorretik bertatik uretara sartuta zein txalupan txangoa hartuta.



CASTILLO DE LAPOBLACIÓN

Motz eta zorrotz

Testua eta argazkiak: **Andoni URBISTONDO**



Toloño mendikateak bi mundu banatzen ditu. Iparrean pago basoak daude, soroak eta garagar sail bakan batzuk. Hegoan dena da horia, eta mahastien berdea. Han klima kilometro batzuk iparrerago baino askoz lehorragoa da. Castillo de Lapoblación da bi isuriak banatzen dituen gailurretako bat. Altueran apala, erraza, ikuspegi dotorekoa eta ipar eta hego isuria ezagutzeko aukera ematen duena egun erdiko txangoan.



Lizarrerriatik ederki ikusten da Joar mendia, Kodes mendigunean; 1.417 metroko altuerarekin bailara horren mendebaldeko atea da. Laplana eta Joar mendietan hasten da ia 50 kilometro luze den mendikate dotorea, Euskal Herriko zabalena Pirinioak alde batera utzita. Goi mendi haiek adina eragin dauka kliman Toloño mendikateak (Kantabriako mendiak, bertakoen ahotan), eta, ondorioz, bizimodu eta tradizioetan. 600-700 metroko hesi handia egiten du iparreko bailaretan, 900 metrokoa ere bai hego isurian.

Iparrera gari eta garagar sail bakan batzuk daude Arabako Mendialdean, Kanpezu aldean, baina soroek eta basoek presentzia handia dute. Hego isurian basoa desagertu egiten da ia erabat, eta lursail horiek eta mahastiek bereganatzen dute terreno guztia. Esan beharrik ere ez, Arabako Errioxa eta Nafarroa hegoaldeko ardoek munduan barrena duten fama. Toloño mendikateak hezetasuna ipar isurian tenkatzearen ondorioetako bat.



Toloño mendikateak hainbat tontor ezagun ditu: Joar, Cruz del Castillo, Palomares, La Rasa, Toloño gaina bera... Castillo de Lapoblación ez dago gehien igotzen den gailurren artean, baina badu bere interesa: txango erraza da, desnibel apalekoa, 300 bat metro baino ez, eta egun erdiko txangoan harkaitz ikusgarriaren bi isuriak ezagutu daitezke, ipar eta hego isuriaren arteko ezberdintasunaz modu zehatzean jabetzeko. Castillo de Lapoblación gandorrari Castillo bakarrik esaten diote bertakoek, baina baita Etzandako Lehoia ere. Izan ere, itxura hori dauka Labraza aldetik ikusten denean (Araba). Ontzi bateko brankaren tankera ere badauka Castillo mendiak.

Mendiko oinetakoak jantzi eta ibiltzen hasi aurreko errepide bidea ere interesgarria izaten da sarri. Lapoblación herrira iristeko bidea halaxe da, Torralba del Río, Azuelo edo Aguilar-Kodes herriak zeharkatuz Joar harroaren magalean. Lapoblación herrixkara iritsi baino kilometro eskas lehenago ikusten da lehen aldiz bere osotasunean Castillo mendia, 200 metroko haitz tentez jositako harri puska.

Erreportajearen lehen orrian, Toloño mendikateko gailur garaienak, Lapoblación haitzeko ipar isuritik: Cruz del Castillo, Palomares, La Rasa eta Peñalta. 46. orrialdean, Lapoblación herrixka; lerroon gainean, Castillo tontorrera daraman xendran zirga bat. Hurrengo orrietan, hurrenez hurren, Castillo mendiko pago basoa, mendi bera Arabako Errioxatik, ipar eta hego isuriak bereizten dituen bidegurutzea eta ibilbidearen hasiera.



**Castillo mendiko
irteera oso egokia
da uda partean:
laburra, erosoia
eta aberasgarria,
bidea hego eta
ipar isuritik egiten
baita**

Lapoblación herria 960 metrora dago. Pirinioetatik kanpoko Euskal Herriko herri garaiena da, eta Castillo haitzaren babesean dago. Uda aspaldiko beroena izan da Euskal Herrian, eta, horregatik, goiz xamar mugitzea komeni, bero saparen atzaparretan ez jausteko. Herri txikia da, 100 biztanle baino gutxiago. Eliza ondoan aparkatzea onena, bertan hasten baita txango zirkularra, Castillo haitzari buelta osoa ematen dion mendi irteera.

KATE ETA ZIRGAK MENDIAN GORA Pista zabal batean egiten da lehen ordu laurdenean, baina berehala mendi bide bilakatzen da. Hainbestera, hiru gunetan kateak daudela itsatsita mendi hormetan, irristatzeak saihesteko. Zorua lehorra dago abuztu betean, baina hezetuta dagoenean arrisku usaina dauka bideak. Kate edo zirgei helduta, ordea, batere komeriarik ez. Tarteka, mendian oso behera geratu den Lapoblación herriari begiratua ematea komeni, oso azkar irabazten baita altuera.

Sastraka azkar desagertzen da, eta mendi handiak agertzen hasi oster-tzean: ekialdean Joar, urrun samar, eta gure begi aurrean El Tajo erpina (1.201 metro). Eskalada bide batzuk badaude tontor horretan.

Bideak azken norabide aldaketa egiten duen tokiari arreta berezia eskainiko diogu, ibilbide zirkularra osatzeko norabide aldaketa horretan dagoelako bueltako bidea Castillo haitzeko ipar isuritik egiteko. Gailurretik bizpahiru minutura dagoen gune laua da, erdi-erdian metro erdiko seinalez tapen makila daukana.



Ordubete eskasean iristen da gailurra, 1.244 metrora, eta ikuspegia zoragarria da: Logroño Errioxako hiriburua ezin hobe nabarmentzen da, baita Guardiako kaskoa ere, Araban. 10-15 kilometro eskasera daude bi gune horiek lerro zuzenean. Mendebalderantz Toloño mendikateko gailur tente guztiak agertzen dira: Peñalta, Peña del León, Palomares... Iparrera ere garbi ikusten dira Beriain, Muela, Aratz edota Aizkorri mendiak, tarteka Kantauri itsasoko lanbroak harrapatuta.

Atzera egin, eta esandako bidegurutzean ipar isurira egingo dugu jauzi. Hasierak bihurri samarra dirudi, malda handia dagoelako, baina, lehor egonda, arriskurik ez. Zirga bat ere bada, jaitsiera laguntzeko. Castillo haitzeko pareta ikusgarrien azpian ibiliko gara, eta horrek erakargarri egiten du oso itzulerako bidea. Altuera galtzen goazen heinean haitzak desagertzen hasten dira, pago baso dotoreak beste mundu batera eramaten baitu mendizalea. Baso itxia da, hezetasuna gordetzen dakiena, eta zorua hostoz josia dago. Eguzki printzarik ez da sartzen bertan, eta ez du batere berorik egiten.

Castillo haitz osoa inguratu ondoren, Aldea edo Bernedo mendateraino iristen da bidea ia-ia. Araba eta Nafarroaren arteko muga naturala da gune hori. Meano herrixka ere gertu ikusten da, baina ibilbide zirkularra osatzeko ekialderantz egin behar dugu, eta berriro Castillo haitzaren magaletik Lapoblación abiapuntura iritsi, bi ordu eskaseko txangoan.

GIDA PRAKTIKOA

KOKAPENA

Castillo mendia nafar hego-mendebaldean dago, Arabako mugatik oso gertu, eta Errioxatik dozena bat kilometrora. Toloño mendikatean dagoen tontorra da (1.244 metro).

NOLA IRITSI

Hainbat modu dago Nafarroako Lapoblación herrixkara iristeko. Nafarroatik Los Arcos herritik joatea onena, Aguilar Kodes herrian barrena. Vianatik ere irits daiteke, Moreda eta Labrazan barrena. Guardia eta Kripan herrietatik ere bidea erraza da (Arabako Errioxa). Toloño mendikateko ipar isuritik joanez gero, Araba aldetik, Bernedo herrian barrena izen bereko mendatea igo eta berehala iritsiko gara Lapoblación herrixkara.

EZAUGARRIAK

Castillok ez dauka altuera handirik, baina 200-300 metroko haitz ikusgarria da hainbat tokitatik. Iristen zaila dirudi lehen begiratuan, baina gailurrerainoko bidea oso erraza eta eroso da. Ibilbide zirkularrak sei kilometro eskas ditu, eta bi ordutan egin daiteke. Irteera aproposa da udako egun beroetan.

BURDINAZ ERROTUTAKO EUSKAL HERRIAREN HISTORIA

Meatzaritzaren Museoa



Testua eta argazkiak: **ELI TXAPARTEGI**

Gallartan kokatuta dagoen Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa euskal, eta, batez ere, bizkaitar, meatzari-industria ondarearen parte handi baten zaindari behinena da. Duela urte batzuk galtze eta ahanzte bidean zegoen ondare hura horma batzuek gordetzen dute orain, burdinaz moldatutako Euskal Herriko historiaren lekukotasuna emateko.

Bagonetak, lokomotorrak, poleak, forjak, kaskoak, uniformeak, bide-hondarrak, idazkunak, orgak, garraio-perikatxoak, mineralak, barrenak, mazoak, genefonoak, mailuak, pikotxak, osasun-materialak, maketak, kargajasogailuak, sutegiak, soldata-liburuak, erremintak, argazkiak eta dokumentu historikoak. Gallartan kokatuta dagoen Euskal Herriko Meatzaritzaren Museora hurbiltzen den edonor denboran atzera egingo du eta era atsegin eta entretenigarri batean XIX. mende bukaerako eta XX. mende hasierako Bizkaia meatzariaren gizartera hurbiltzeko aukera paregabea izango du.

Museoak 2001ean ireki zituen ateak, Bizkaiko udalerriko hiltegi zaharrean, nahiz eta proiektuaren ideia duela urte batzuk hasi zen lantzen, 1986an hain zuzen ere, meatzari ohiek eta burdingintzako langileek –Carmelo Uriarte, horien artean– Meatzaritza Museoa Kultur Elkartea sortu zuten. Bizkaiko meatze-tradizioaren aztarnak desagertu zitezkeela-eta kezkatuta, elkarrekin lan egitea erabaki zuten, abandonuarekin mehatxatuta zegoen meatzaritza-ondarea berreskuratzeko eta mantentzeko asmoz. Euskal historiaren zati bat, bereziki Bizkaikoa zena, ahanzturatik ateratzea zen helbururik nagusia. Eta horrela sortu zen Meatzaritzaren Museoa, hainbat urtez piezak, erremintak, makinak eta dokumentazioa zenbait mendi, hobi eta lantegitan bildu ondoren. Museoa dagoen eraikinera sartu aurretik ere, bisitaria harritu egingo da kanpoan erakusgai dauden bitxi batzuekin; nabarmentzekoa, bereziki, bikain mantentzen den antzinako tren-makina bat.

Behin hiltegi zaharraren barruan, gaiak, dokumentuak, argazkiak eta meatzaritzako eguneroko bizitzako elementuak txandakatzen dira. Kaskoak, antzinako altzariak –batez ere, ondo kontserbatutako mahaigainak–, garai hartako liburuak, etxeko tresnak, osasun-materiala... daude. Eta areto berezi bat, kolore gorri zindaturik, Dolores Ibarruri, *Pasionaria*, 1895ean Gallartan bertan jaio zenari eskaintzen zaiona. Jendaurrean ikusgai jarritako funtsen artean, antzinako argazkien bilduma eta meatzariak lan egiteko zituzten baldintza negargarriei eta bizi zuten egoera ankerrak eragindako lan-gatazkei buruzko datu argigarriak ematen dituzten dokumentu eta txosten batzuk daude.

Hain zuzen ere, erakutsitako soldata-liburuak ikaragarritzko esplotazio haren lekuko eztaba daezin bihurtu dira. Kontserbatutako kontabilitate-liburu haietako baten arabera, euria egiten zuenean, ez zen lanik egiten eta, beraz, ez zen kobratzen; deskontu bat aplikatzen zen ospitaleen mantentze-lanetarako, eta meatzariak enpresen kantinetan bakarrik eros zitzaizketen hornidurak, oso garestiak baitziren. Meatzaritzako jornalaren batezbestekoa 2,75 eta 3 pezeta artekoa zen 1880 inguruan.

Badira xehetasun garrantzitsuak ematen dituzten argazkiak ere, hala nola meatzariak goizean goizetik gau-gauera lan egiten zutela. XIX. mendearen amaieran, lanaldia goizeko bostetan hasi eta iluntzera arte ez zen amaitzen. Bi modutara lan egiten zuten: jornal bidez, lanaldi osoa lan egitean zetzana, edo ataza bidez, aldeztu aurretik finkatutako lana eginez. Bigarren



molde horrek beste lan osagarri batzuk egiteko aukera ematen zuen, ordainsari osagarri batekin. Irudiek erakusten duten moduan, ohikoa zen haurrek lan egitea.

HALAKOA ZEN GALLARTA ZAHARRA Museoaren beste erakargarritasunetako bat burdin mearen mantu aberats baten gainean kokatua dagoen Gallarta zaharraren maketa da. 1956. urtean, bertako biztanleak etxetik atera eta etxebizitzak eraitsi ostean, nahitaezko desjabetzearekin zitzaion. Horien artean, preseski, Dolores Ibarruri bizi zen etxea zegoen, Peñucas kalean.

Mineralaren ustiapen intentsiboa bi eratarara egin zela ere erakusten du maketak: lurpeko eta aire zabaleko galerien bidez. Maketa duela gutxi zaharberritu dute, baina Franco Belga konpainiak ustiapen-proiektua aurkezteko erabili zuen huraxe da. Urte batzuk geroago, meategia Gallarta Historikoa estaliz osatu da, estalki mugikor gisara. Irudien artean nabarmentzekoa da, halaber, Gallartako udal eskolako neskato talde baten argazkia. Bertan, berriz ere, La Pasionaria, kasu honetan lankideekin eta Gernikako bonbardaketan hil zen eta bere irakaslea izan zen Antonia Izaurrekin batera.

Museoaren barruan, era berean, meatzaritza-lanetan egunero erabiltzen ziren tamaina txikiagoko piezak daude: azetilenozko argiak –karburak edo karburoak ere esaten zaie, eta XX. mendearen hasieran ohiko belak eta olio-lanparak ordezkatu zituzten–, txokoak –meatzarien ohiko oinetako, iraunkor eta gogorrak, zurezko zoladunak, larruz, burdinazko xaflez eta tatzetaz osaturik–, teodolitoak –angeluak, distantziak eta altuera ezberdinak neurtzeko tresna–, barrenak, koilaratxoak, abakoak, bagoiak, maskarak... Balio handikoak guztiak, Bizkaiko meatzaritzaren urrezko garaiko pieza bakarrak direlako.





Museoaren kanpoko eta barruko hainbat irudi, meatzaritzan erabilitako tresneriaren aberastasunaren erakusle eta duela mende bat meatzariak bizi zuten egoera gogorraren lekuko.



Museoaren kanpoaldean, berriz, tamaina eta pisu handiagoko makina askoren artean ibiltzeko aukera dago, gehienak burdin mea erauzteko eta ondoren garraiatzeko eta tratatzeko erabiltzen ziren tresnak izanik. Horiez gain, sutegiko piezak eta bertako burdinaz egindako nekazaritza-tresnak daude ikusgai.

Barrualdea baino handiagoa den kanpoko eremu horretan bagoneta ugari dago –zaldiek, idiek eta mandoek tiratuta, harrobietako eta galerietako minerala trenbideetara ino garraiatzen zutenak– eta karga-jasogailuak –bagoneta hutsak meategi barrura sartzeko eta burdin karbonatoarekin kargatutako bagonetak igotzeko erabiltzen zirenak–. Eta, han ere, jardineria izenez ezaguna, hasieran meategietako hondakinak husteko diseinatutako karga-jasogailua, ondoren meatzariak garraiatzeko erabili zena.

KONTXA II MEATZEA Kanpoaldean ere, baina urrunxeago, Kontxa II aire zabaleko meategia dago; 50 kilometroko galeriak ditu, inguruko zorupea zeharkatzen du eta bere garaian Europako burdina-meategirik handiena izan zen.

Meategiaren zati txiki bat bakarrik dago ikusgai, baina, halere, irudiak zirrara eragiten du. Zulo handi bat irekitzen da bisitariaren oinetan, 12 milioi metro kubikoko hutsunea, eta haren azpian galeria-sare bat, itsas mailatik 200 metro baino gehiagora. Euskal Herriko burdin mineralaren aire zabaleko azken ustiapena izan zena 1984an itxi zen, nahiz eta galeriak 1993ra arte funtzionatzen jarraitu.

Hori bai, kasu, meategia museoko gida batekin bisitatzea merezi du. Bertan, hainbat ikastaro ere burutzen dira, besteak beste, harri-zulatzaila-rena, eta meatzaritzarekin lotutako jarduerak. Cantina deritzona ibilbidearen amaierarako uztea ez da, inondik inora, ideia txarra.



Erdi Aroa mitoetatik libratzen, euskal gazteluei esker

UZTAILAK 14-URTARRILAK 15

Nola sortu ziren Euskal Herriko gazteluak? Zein izan zen haien bilakaera? Nortzuek eraiki zituzten? Zein forma arkitektoniko eman zieten? Zein funtzio bete zuten? Zergatik izan ziren Erdi Aroko gudak tresna politikoa? Galdera aunitz baina erantzun aunitz ere biltzen ditu Bilboko Arkeologi Museoak (Mallona Galtzada, 2) hartzen duen “Euskal Herriko Erdi Aroko Gazteluak: lurraldearen zaindariak eta boterearen irudia” erakusketak.

Erdi Aroko historian doktore diren Jose Angel Lecanda, Deustuko Unibertsitateko irakaslea, eta Iñaki Garcia Camino, museoko zuzendari-teknikoa, izan dira komisarioak. Arkeologiaren bidez, Hollywoodek edo *Game of*

Thrones bezalako ekoizpenek epealdi historiko honen inguruan sortutako mitoak hautsi nahi dituzte.

Horretarako, garai hartako egunerokotasunean murgilduko gaituzte, gure herriko gazteluetan burututako indusketa arkeologikoetan aurkitutako pieza esanguratsuen bidez. Bertan ikusgai daude, besteak beste, sare-kota bat, kasko eta aizkora bat, zaldun eta infanteen ezpatak, lantzak eta geziak, zaldien janzkera eta apaingarriak, kaliza bat, jostailuak, titare bat, bolardoak... Espresuki sortutako ikus-entzunezko bi lani esker, airetik eta lurretik ikusiko ditugu zenbait gaztelu eta bertatik bertara biziko dugu gotorleku batean gatazka beliko bat. Horrez gain, irailaren 19tik aurrera, bisita gidatuak, familiarrentzako tailerrak eta Ereñozar, Muñatones eta Tebasko gazteluetara irteerak antolatu dituzte.



«Imajinatu Zinemaldia»

IRAILAK 21-URRIAK 31

Donostiako Tabakalera eraikineko hainbat espaziotan zabaltzen den erakusketa da «Imajinatu Zinemaldia». Ikus-entzunezkoen bidez, alfonbra gorrian eta pho-

toall-ean barrena paseatuko dugu Zinemaldian izan diren pertsona ospetsuekin batera, jaialdiaren historiari buruzko xehetasunak ezagutuko ditugu, zinema areto batean eseriko gara anekdota onez gozatzeko edota publikoak egin eta erakusketa honetarako eskuzabaltasun osoz lagatako argazkiak ikusiko ditugu. 70 urteko ibilbide oparoaren laburpena, Morgancreea, Carlos Rodriguez eta Asun Lasarte komisarioen eskutik.

IRAUTZA, MEMORIA ETA ERRESISTENTZIA GIDA

Sator moduan Euskal Herriko hamaika kobazulotan bizitza eman ostean, Xabier Peñalver arkeologo donostiarrak burua altxatu eta sei kontinentetako 350 iraultza, erresistentzia eta memoria gune biltzen dituen liburua ondo du. Irudi anitzekin, era labur eta errazean, ohiko gidek erakusten ez dituzten lekuetara hurbilpena egin du Peñalverrek, bakoitzaren informazio aipagarrienak bilduta. Frantziar Iraultzatik gaur egunera bitarteko prozesu eraldatzaileak eta askatzaileak gertuagotik ezagutzeko museo, monumendu, etxe, esparru, parke... ezagun zein ezezagunetara bidaia proposamen guztiz gomendagarria.

Antzinako musika emakume ahotsez

IRAILAK 3-10

«Bera da» lelopean, Errenazimentuan eta Barrokoan emakumeek musikan izandako papera gogoratuko du Lizarrako Antzinako Musikaren Jaialdiaren 53. edizioak. Stile Antico, Isata, La Ritirata, Wasserman, Delirivm Musica, Jordi Savall, Xabier Diaz-Latorre, Pascal Caumont, Manuel Vilas, Daniel Zapico, Miriam Feuersinger, Il Gardelino, Silvia Marquez, Egeria, Juan Andres Pastor eta Los Afectos Diversos musikariek parte hartuko dute.

Iraileko igandeetan, erromeria Hernion

IRAILAK 4, 11, 18, 25

Tradizioak horrela aginduta, iraileko igande guztietan Hernio mendiko Zelatungo lepoan (859 m) erromeriak egiten dira. Gipuzkoako ingurune natural paregabe horretan pasieran ibili ondoren, jai giro erakargarria sortzen da Antonioren eta Agirretxeren borden artean, inguruko herrietako ehunka lagunak oinak eta sabelak dantzant jartzen dituztelarik trikitilariak, ardoak eta txorizo eta haragi egosi ogitartekoak.

Revolución, resistencia y memoria. Patrimonio de la humanidad.

Xabier Peñalver

Txalaparta, 2021.

420 orrialde. Gaztelania.



Izotzak gordetzen duena

Ilulissat Icefjord Zentroa

Testua: **Gaizka MARTINEZ** Argazkiak: **Odd ANDERSEN** | AFP

Naturak, zientziak, arkitekturak eta arteak paisaia artiko muturreko honen erdi-erdian bat egin dute daniar-groenlandiar ekimen bati esker. Groenlandian Unescok babestutako eremu batean dago Ilulissat Icefjord Zentroaren eraikina. Babesleku, behatoki eta bilgune natural bihurtzea du helburu eta, bertatik, klima aldaketa gero eta agerikoagoa den honetan, natura artikoaren eskala amaigabea eta ez-gizatiarra, iluntasunaren eta argiaren arteko trantsizioa, gauerdiko eguzkia eta egunsenti boreala zeruan dantzan bizitzeko aukera izango dugu.



Ilulissat Groenlandiako mendebaldeko kostaldean dagoen herria da, Disko izeneko badian, zirkulu polarraren iparraldean, 250 kilometrorra. Eskuzabaltasunez, izena eman dio ondoan duen 11 kilometroko zabalerako *iceffjord* edo izotz fiordo ikusgarriari. Begi hutsez ikusi ahal da bertan klima aldaketaren presentzia ukazina; izan ere, hemen aurkitzen dira planetaren beroaldia gehien pairatzen duten glaziarrek. Ilulissatekoak, esaterako, gutxienez 10 kilometro egin du atzera azken hamarkadetan. Bizi duen muturreko hauskortasunagatik, habitat natural berezi hau 2004an sartu zen Unescoren gizateriaren ondarearen zerrendan eta, horren harira, bertan sortu zen, hamabost urte gerora, Ilulissat Icefjord Zentroa eraikitze proiektua. Hala, 2021eko uztailean ireki zituen ateak estreinakoz.

ARKITEKTURA ETA PAISAIA BAT EGINIK Dorte Mandrup arkitekto daniar ospetsuak diseinaturik, erakusketa, hezkuntza eta ikerketa guneak, zinema aretoa, kafetegia eta denda bat biltzen dituen 1.500 metro karratuko eraikina da Ilulissat Icefjord Zentroa. Egurrez, beiraz eta altzairuzko 52 markoz altxatu dute. Kanpotik, hildako antigoaleko animalia baten hezurdura izan zitekeenaren edo elurretako hontz baten lur hartzearen antza





hartzen du. Hedatu nahi dituen printzipioekin bat eginez, zentroaren zorua, teilatua, kanpoko terrazak eta estalkia, baita barruko gainazal ugari ere, europar haritzaz egindakoak dira, horrek berokuntza naturalaz hornitzen duelarik etxea.

ZIENTZIA ETA ARTEA, NATURAREN ATE. Ilulissat Icefjord Centre instituzioaren arabera, «inguruan dugun mundua erregistratu eta deskodetzen du zientziak, eta arteak interpretatu, azaldu eta miretsi egiten du». Hain zuzen ere, artearen eta zientziaren arteko hartu-emana da proiektu honen muina, naturaren errailetara iritsi eta honek jasaten dituen aldaketaz jabetzeko.

JAC Studios-ek sortutako instalazio iraunkorrean, ingurumenaren eta bertako biztanleen soinu, hiru dimentsiotako irudi eta ukimen unibertso baten bidez, izotzaren eta gizateriaren arteko erlazioaz jabetzeko aukera izango dugu. Milaka urtetan zehar inuitak Disko badian bizi izan dira eta haien kultura eta bizimodua –ehiza, arrantza, arropa ekoizpena, garraio teknologia...– muturreko klima honetara nola egokitu dituzten ulertu ahal izango dugu, gizakia-natura ustezko erlazio malkartsuaren alde sinbiotikoak geureganatuz.

Leihate zabaletatik eta irekia den sabaitik inguru latz bezain zirrargarriaz gozatu daiteke. Kanpoko ikuskizun hau barnean azaltzen da argiago, bisitaren elementu nagusia delarik: izotz geruzen eta izotz nukleoen erakusketak. Egungo eta K.a. 124.000 urte bitarteko kultura eta klimari buruzko istorio bat kontatzen da bertan. Izotz xafla bakoitza elur geruzek eratua da, urtez urte, maluta bat bestearen gainean pazientziaz apailatu ostean. Elur partikulen artean, izotzak aire izpi txikiak ere ezkututzen dituela konturatuko gara. Liburu ireki bat balitz bezala, izotz geruzek iraganean jazitako gertakari handien berri ematen dute, sumendien erupzioek, eguraldi eta klima aldaketek edo meteoritoen talkek utzi dituzten arrastoei esker.

Azken batean, izotzaren historia bizitza nola sortu eta mantendu den kontatzen digun istorioa ere bada. Fiordo edo glaziarren izotz geruzen pisu hondogabe eta sakonaren historia, milaka urtetan haren azpian karraskatu eta, ozeanoranzko bidaia geldo baina saihetsezinean, aurrera bultzatu dituen arroken historia ere badena. Baina, bortizkeria eta laztasun honen aurrean, jelak bizitza ere esan gura du gizaki eta animalientzat, bazter honetan bi-biek izotza behar baitute ehizarako edo arrantzarako.

Ur solidoaren oinarri sortzaile horretara hurbiltzeko atea da Ilulissat Icefjord Zentroa, gizateriaren handitasuna, makurkeria eta txikitasuna parez pare jartzen dituen. Elisabeth Momme zentroaren arduradunak espero du «bisitariak kontzientzia hartuta ateratzea hemendik, alegia, gizatasuna ezin dela naturaren gaintetik jarri, natura eta gizatasuna bat direla, natura zaindu behar dela, eta ez garela haren jabeak, mailleguan baino ez dugulako». Finean, urtzen den jela zati bakoitzean ikusiko baitugu islaturik, Ilulissateko Icefjorden, gizakiok munduan uzten ari dugun aztarna ezabagaitza. Lurraren muturreko paraje honetan, arnasgune eta hausnargune den honetan, aurkituko ote ditugu, akaso, premiazkoak zaizkigun galderen erantzunak.

Esploratzaile gela deiturikoan, Groenlandiako ikergune guztiek izotzetik helarazten dituzten soinuak gordetzen dira. Hotsak gela barruan eraldatzen dira eta sinfonia eder baten eran sentitzen ahal dira, bisitariak begiak itxi eta izotzetan daudela amets egin dezaten.



INFERNUAN BIZITZEN IKASTEN

Nazio Batuen arabera, klima aldaketa gehien pairatuko duten bost herrialdeen artean dago Irak. Uda heldu ere egin baino lehenago, infernuan bizi ziren Bagdad edo Basora hirietan, besteak beste. Batean, itzaletan 50 °C-ko langa gaintitu zuen termometroak; bestean, berriz, 40 °C-koa.

Azken hamarkadetako lehorterik handienak eta guda amaigabeek eragindako azpiegitura faltak argindar mozketak ugari eragin dute aurten.

Arazoak konpontzeko agintariek duten gaitasunik ezagatik etsipenez gainezka, herritar askori Tigris eta Eufrates ibaiek bat egiten duten Shatt al-Arab portuan freskatzea beste aukerarik ez zaie geratzen. Hussein

FALEH | AFP



BUFALO LASTERKETAK ARROZ EREITE SASOIA HASTEKO

Ez dira sanferminak baina, gure hiri-buruan bezala, landareen ustiaketa zikloekin lotura zuzena dute Thailandiako bufaloen lasterketek. Iruñean zerealen uzta garaiaren amaia ospatzen da, eta Chon Burin, Ban Buengen edo Nong Yainen, aldiz, urtero-urtero antzerako festarekin ematen diote hasiera arrozaren ereite sasoiari.

Udaletxe aurrean bilduta, haien jabeek laidogarririo eta irudimentsuki jantzita, animaliek lasterketetan edo, euskal idi proben antzera, gaitasun fisikoko lehiaketetan parte hartzen dute. Manan VATSAYANA | AFP



PARIS HENGE: PARISKO UDAKO SOLSTIZIOA

Urtean birritan baino ikusi ezin den fenomeno da Paris Henge edo Parisko udako solstizioa deritzona. Eguzkia Garaipen Arkua-
ren atzetik sartzean gertatzen da. Aurten, pasa den abuztuaren 2an jazo zen azkena eta maiatzaren 8an lehenbizikoa.

Urtero-urtero, bi data horien inguruan, ehunka argazkilari eta ikusle pilatzen dira Champs-Élyséesen inguruan irudirik bikainenena harrapatu nahian. Askoren esanetan, Rond-Point des Champs-Élysées da perspektibarik behinena lortzeko puntua.

Ingalaterrako Stonehenge harrespiletik hartzen du izena Paris Hengek. Stefano RALLANDINI | AFP



MEDITERRANEOA, MARMOKA MOREZ GAINEZKA

Portugalgo hegoaldetik Gazako kostalderaino arazo larria bihurtu da marmoka morearen (*Pelagia noctiluca*) izurritea. Europako tenperaturen gorakada, gehiegizko arrantza eta haien harrapakari nagusi diren dortoken kopuruaren jaitziera izan daitezke arazoaren zio nagusiak, adituen arabera.

Pascal POCHARD-CASABIANCA | AFP



IRAGANA ETA ETORKIZUNA BAT EGINIK LIBURU ARTEAN

Mohammed Bin Rashid liburutegia inauguratu berri dute Dubain. Milioi bat tituluren artean, hainbat altxor bildu dituzte: Koranaren antigoaleko zenbait ale eta “On Kixote Mantxakoa” eleberri epikoaren lehen edizioa. Horien aldamenen, adimen artifizia eta robotak izango ditu eskurgai irakurleak liburuak irisgarriago egiteko. Giuseppe CACACE | AFP



UR GAINKO JATETXERIK HANDIENA, HONDORATUTA

Jumbo ur gaineko jatetxean ibili zen Roger Moore James Bond haragitzen 70eko hamarkadan. Ordutik, pertsonaia ezagun asko eseri ziren bere mahaian bueltan, eta Hong Kong irlako tokirik bisitatuenetakoa bilakatu zen. 2013tik ekonomikoki hondoratzen hasia, betiko galdu da ur azpian, lekualdatze baten erdian itsas-ekaitz batek jota. Jerome FAVRE | AFP



290 MILIOI URTEKO BRASILGO BASOA

290 milioi urtez ezkutuan egon den baso fosilizatu harri-garri batek argia ikusi du Brasil hegoaldeko Ortigueira herrian. Ezohiko posizioan –bertikalki– agerturik, landareen eboluzioa aztertzeko iraganerako leihotzat jo dute. Desagertutako mota bateko lycophyta enborrak hego hemisferioko fosil aurkikuntzarik garrantzitsuena dira. Ricardo CHICARELLI | AFP



ARROZ SOROA ARTELAN BIHURTUTA TXINAN

Hainbat mota eta koloretako arroza ereinez, motibo ezberdinetako muralak eraikitzen dituzte urtero Xibo herriko laborariek Shenyang-en, Txinako ipar-ekialdeko Liaoning probintzian. Batik bat osagai erlijiosoa duten arren, hiru dimentsio antzeratu nahi duten artelanek egunerokotasuna eta pertsonaia literario eta zinematografikoak irudikatu ohi dituzte. 2012an munduko marka hautsi zuten xibotarrek, arroz soro batean inoiz egin den irudirik handiena sortuz. STR | AFP




HARAGIRIK GABEKOA ETA ONENA

Kopenhageko Geranium izendatu dute irabazle 2022ko Munduko 50. Jatetxe Onenen Sarietan, 2021ean bigarren geratu ostean. Rasmus Kofoed sukaldariak gidatutako hiru Michelin izardun jatetxea «haragirik gabeko gunea» da, «ustiategi ekologikoetatik datozen tokiko itsaski eta barazkiak» eskaintzen dituztelarik soilik. Claes BECH-POULSEN | Geranium



GAURIK LUZEENA ANTARTIKAN

Ekainaren 21az geroztik zortzi egunez egunsentirik gabe bizi ohi dira Australiako Antartikako Dibisioko kideak eta murgiltze polar erritual batekin ospatu zuten urteko egunik motzena eta gaurik luzeena Mawson estazioan. Troy HENDERSON | AFP



KOMETAZALEEN TOPAGUNEA

Munduko kometazale haur eta helduek berriz ere kolore eta diseinu ezberdinetako milaka jostailu hegalariz bete zuten Fanø-ko (Danimarka) zerua. Familia giroan, musikaz, naturaz eta kirolaz gozatu zuten, halaber, partaideek. Adi, datozen edizioak abian baitira jada. Bo AMSTRUP | AFP

A person is relaxing in a motorhome, looking out the open rear door at a vast ocean under a cloudy sky. The person's legs are visible, resting on a thick, textured blanket. A white mug is held in the foreground. The interior of the motorhome is visible, including the rear door frame and side windows with curtains.

**Lurralde
berrietara
goaz**

bidaiari

Hilabetero zure kioskoan **naiz:**-en bidaia aldizkaria euskaraz